**Zk-4032**

AGINDUA, 2004ko uztailaren 1ekoa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, zeinaren bitartez «Enkarterrietako astoa» asto-arrazari buruzko arau bereziak onartu baitira.

Euskal Herriko bertako abere-arrazei eta arrazok sustatzea helburu duten elkarteei buruzko abenduaren 26ko 373/2001 Dekretuak, besteak beste, ondokoak ezarri zituen: Euskal Herriko bertako abere-arrazen katalogo ofiziala, eta arraza-estandarrak onartzeko oinarrizko baldintzak. Era berean, Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseilua sortu zuen.

Dekretu horrek, batetik, 3.2 artikuluan ezarri ditu dekretuan bertan jasotako arrazentzako arau bereziak, Dekretuan ezarritakoaren arabera; bestetik, 4. artikuluan, arrazen arau berezietan ezarri behar diren oinarrizko edukiak, eta, azkenik, 6.3 artikuluan, Arrazen Kontseiluaren eginkizunen artean ondokoa ezarri du: katalogoan jasotako arrazei dagozkien arau bereziei eta horien aldaketei buruzko argibideak arauz ematea.

Horiek horrela, eta Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseiluarekin bat, ondokoa,

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Agindu honetako eranskinean agertzen den «Enkarterrietako Astoa» asto-arrazaren arau bereziak onartzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko uztailaren 1a.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

ERANSKINA

«ENKARTERRIETAKO ASTOA» ASTO-ARRAZAREN ARAU BEREZIAK

1.– PROTOTIPOA ARRAZA-ESTANDARRA.

1.1.– Arrazaren definizioa.–

Arau honetan zehazturiko arraza-prototipoarekin bat datozenak hartuko dira «Enkarterrietako Astoa» asto-arrazakotzat.

1.2.– Arrazaren barietateak.–

**N°-4032**

ORDEN de 1 de julio de 2004, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la reglamentación específica de la raza asnal «Asno de las Encartaciones».

El Decreto 373/2001, de 26 de diciembre, sobre razas animales autóctonas vascas y entidades dedicadas a su fomento, estableció, entre otros extremos, el Catálogo Oficial de Razas Animales Autóctonas Vascas y las condiciones básicas para proceder a la aprobación de sus correspondientes estándares raciales. Asimismo, creó el Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas.

El meritado Decreto fija, por un lado en su artículo 3.2, que mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca se establecerán las reglamentaciones específicas correspondientes a las razas en él incluidas, conforme se fija en dicho Decreto; por otro lado, en su artículo 4, los contenidos básicos a establecer en las reglamentaciones específicas de las razas y, finalmente, en su artículo 6.3, entre las funciones del mencionado Consejo de Razas, la de informar con carácter preceptivo las reglamentaciones específicas correspondientes a las razas incluidas en el Catálogo y sus modificaciones.

En su virtud, y de conformidad con el Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Aprobar la reglamentación específica de la raza asnal «Asno de las Encartaciones», que figura como Anexo a la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de julio de 2004.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

ANEXO

REGLAMENTACIÓN ESPECÍFICA DE LA RAZA ASNAL «ASNO DE LAS ENCARTACIONES»

1.– PROTOTIPO O ESTANDAR RACIAL.

1.1.– Definición de la raza.–

Se definen como ejemplares de la raza asnal «Asno de las Encartaciones» aquellos que corresponden al prototipo racial determinado en la presente norma.

1.2.– Variedades de la raza.–

«Enkarterrietako Astoa» asto-arrazan ez dago barietaterik.

1.3.– Arrazaren ezaugarri morfologikoak.–

1.3.1.– Ezaugarri orokorrak.–

Ezaugarriei eta itxura orokorrari dagokienez, arraza elipometrikoa da, soslai zuzenekoa eta sublongilineoa. Iberiar Penintsulako asto-arrazarik txikiena da.

1.3.2.– Ezaugarri bereziak.–

a) Burua:

Ertaina, sakona, batzuetan handi samarra, baina ez astuna.

Bekoki handia, zabala baino luzexeagoa.

Tamaina erdiko belarriak, batzuetan txikiak, oinarri zabalekoak eta mugitzeko ahalmen handikoak, ile gutxikoak. Atsedenean daudelarik, zuzenak, paraleloak eta atzerantz zertxobait etzanak. Adi daudelarik, aurrerantz, tente eta paraleloak; puntek ez dute inoiz elkar ukitzen.

Betzulo markatuak.

Begi handiak, aurpegian agerian, gutxi inklinatuak, beheratuak.

Txikiagotutako aurpegia, maxilar zabalekoa, sakona eta beheko ertz konbexukoa.

Muturra zabala, sakona, ia karratua, sudurzulo biribilak dituena.

Tamaina erdiko ezpainak, oso irmoak; ezpain hertzak sakonera txikia du.

Tamaina erdiko lepoa, batzuetan txikiagotua, giharrak gutxi garatuak dituena. Hertzak zuzen eta paraleloak.

b) Enborra:

Paraleloen artean, zilindrikoa.

Tamaina erdiko soinkurutzea, zabala eta gutxi nabarmentzen dena.

Bizkar-gerrialdearen lerro zuzena, horizontal eta zabala, giharrak sendo garatuak dituena. Saihets-hezurrak okertuta dauzka.

Bular zabala eta sakona.

Bizkarraldea gutxi markatua, bertikalarekin 60.º inguruko angelu bat egiten du.

Zerra zabala, oso konbexua eta gutxi inklinatua.

Sabelaldi bildua.

Sortze baxuko buztana, amaieran ile-xerla ugaria duena.

c) Gorputz-adarrak:

Luzeran eta lodieran tamaina erdikoak.

Tendoi sendokoak eta hanka-jarrera bikaina.

No existen variedades dentro de la raza asnal «Asno de las Encartaciones».

1.3.– Características morfológicas de la raza.–

1.3.1.– Características generales.–

En cuanto a los caracteres y apariencia general, se trata de una raza elipométrica, de perfil recto y sublongilínea. Es la raza asnal más pequeña de la Península Ibérica.

1.3.2.– Características específicas.–

a) Cabeza:

Mediana, profunda, a veces algo grande, pero sin llegar a ser pesada.

Frontal amplio, ligeramente más largo que ancho.

Orejas medianas, a veces pequeñas, de amplia base y dotadas de gran movilidad, con escaso pelo. En reposo, rectas, paralelas y algo inclinadas hacia atrás. En atención, dirigidas hacia delante, erguidas y paralelas, las puntas nunca se tocan.

Órbitas marcadas.

Ojos grandes, a flor de cara, poco inclinados, descendidos.

Cara acortada, con maxilar amplio, profundo y borde inferior convexo.

Hocico ancho, profundo, casi cuadrado, con ollares redondeados.

Labios medianos y muy firmes, comisura labial poco profunda.

Cuello Mediano, a veces acortado, con escaso desarrollo muscular. Bordes rectos y paralelos.

b) Tronco:

Entre paralelas, cilíndrico.

Cruz mediana, ancha y poco destacada.

Línea dorso-lumbar recta, horizontal y ancha, con fuerte desarrollo muscular. Costillares arqueados.

Pecho amplio y profundo.

Espaldas poco marcadas, forma con la vertical un ángulo de unos 60.º.

Grupa ancha, con gran convexidad y escasa inclinación.

Abdomen recogido.

Cola de nacimiento bajo y con abundante mechón terminal.

c) Extremidades:

Medianas en longitud y grosor.

De fuertes tendones y perfectos aplomos.

Aurrealdeko hanketan, besaurrea hanka-hezurra baino luzeagoa da, animalia trostarietan ohi legez. Atzealdekoetan, izterraren eta hankaren artean osatutako angeluaren zabal-zabala nabarmentzen da, horrek bertikaltasun handia ematen dio atzealdeko herenari.

Geldirik dagoelarik, atzeko hankak hanka-hezurren altuerara sartzeko joera du, lehen esandako bertikaltasunarengatik. Aldapa handiak dituzten lurren zehar ibiltzearen ondoriozko egokitzapentzat jotzen da.

Apo biribil eta txikiak, baina oso gogorrak.

d) Larrua:

Larru mehea, hezur eta giharrei oso estu erantsia.

e) Ilajea:

Ilaje beltza edo gaztaina-kolore iluna, begien inguruan, muturrean, galtzarbeetan, sabelaldean eta izterraren barrualdean koloreak galtzen du indarra.

Urtaroen arabera, ilean aldeak daude ukitzean eta luzerari dagokienez. Udakoa fina eta zeta-antzekoa; negukoa, berriz, luzeagoa eta izurtuagoa. Oro har, ilea luzeagoa da belarrien barrualdean.

f) Neurria:

Proportzio sublongilineoak dituzten animaliak. Arren kasuan, garaiera 109 eta 123 cm bitartean; emeen kasuan, berriz, 103 eta 123 cm bitartean.

g) Pisua:

Arraza elipometrikoa da. Arrak, 170 eta 210 kg. bitartean, emeak, 140 eta 190 kg. bitartean.

1.3.3.– Izaera eta portaera.–

Otzanak dira, oso bizkorrak.

1.3.4.– Ezaugarri baztertzaileak.–

Oro har, baztertzailetzat joko dira tara hereditario edo malformazio fisiko nabari guztiak, baita arrazari ez dagozkion ezaugarriak ere.

2.– ANIMALIEN KALIFIKAZIO MORFOLOGIKOA.

2.1.– Kalifikazio-baremoa.–

Arrazaren estandarraren betebeharren arabera, puntuazio metodoaren bidez egingo da kalifikazio morfologikoa. Alde anatomiko bakoitzari puntu bat emango zaio gutxienez, eta hamar gehienez, ondoko baremo honen arabera:

| Kalifikazioa | Puntuazioa |
|---|---|
| Perfektua | 10 puntu |
| Bikaina | 9 puntu |
| Oso ona | 8 puntu |
| Ona | 7 puntu |
| Onargarria | 6 puntu |
| Nahikoa | 5 puntu |
| Baztertzekoa | 5 puntu baino gutxiago |

En las anteriores, el antebrazo es más largo que la caña, típico de animales trotadores. En las posteriores destaca la gran amplitud del ángulo formado por el muslo y la pierna, lo que le confiere una verticalidad muy acusada a todo el tercio posterior.

En la estación tiende a remeter las extremidades posteriores a la altura de las cañas como efecto de la verticalidad antes mencionada. Se considera una adaptación al desplazamiento por terrenos con grandes pendientes.

Cascos redondos y pequeños, pero de gran dureza.

d) Piel:

Piel fina, muy ajustada a los relieves óseos y musculares.

e) Capa y pelo:

Capa negra o castaña oscura, con degradaciones alrededor de los ojos, hocico, axilas, vientre y bragadas.

Marcadas diferencias en la longitud y textura del pelo de carácter estacional; corto, fino y sedoso «pelo de verano» y algo más largo y ondulado en invierno; en general es de mayor longitud en cara interna de las orejas.

f) Talla:

Animales de proporciones sublongilíneas. La alzada es de 109 a 123 cm en los machos y de 103 a 123 cm en las hembras.

g) Peso:

Es una raza elipométrica. Machos de 170 a 210 kg. y hembras de 140 a 190 kg.

1.3.3.– Carácter y comportamiento.–

Son animales dóciles y dotados de gran agilidad.

1.3.4.– Caracteres eliminatorios.–

De forma general, se considera carácter eliminatorio toda tara hereditaria o malformación física evidente y los caracteres no propios de la raza.

2.– CALIFICACIÓN MORFOLÓGICA DE ANIMALES.

2.1.– Baremo de calificación.–

Conforme a las exigencias del estándar racial, la calificación morfológica se realizará sobre la base del método de puntos, asignándole a cada región de uno a diez, según el siguiente baremo:

| Calificación | Puntuación |
|---|---|
| Perfecta | 10 puntos |
| Excelente | 9 puntos |
| Muy Buena | 8 puntos |
| Buena | 7 puntos |
| Aceptable | 6 puntos |
| Suficiente | 5 puntos |
| Inaceptable | Menos de 5 puntos |

Arrazaren liburu genealogikoan onartuak izateko, animaliek gutxienez bost puntuko kalifikazioa lortu behar dute balioetsi beharreko gorputz-alde bakoitzean.

2.2.– Kalifikatu beharreko alderdiak eta alderdion ponderazioa.–

Kalifikatu beharreko gorputz-aldeak ondokoak dira:

Koefiziente biderkatzaileak

| Kalifikatzeko aldeak | Arrak | Emeak |
|---|---|---|
| Burua eta lepoa | 2 | 1,5 |
| Bularra, sorbalda eta toraxa | 1,5 | 1,5 |
| Soinkurutzea, bizkarra eta gerruntzea | 1 | 1 |
| Zerra eta buztana | 1 | 1,5 |
| Izterrak eta ipurmasailak | 1 | 1 |
| Gorputz-adarrak eta hanka-jarrera | 1 | 1 |
| Sexu-organoak | 0,5 | 0,5 |
| Gorputz-garapena eta eiteen osotasuna | 2 | 2 |
| Guztira | 10 | 10 |

Gorputz-alde bakoitzari esleitutako puntuazioa bider sexuaren arabera aldeari koefizientea eginez, gorputz-alde bakoitzaren puntuazioa lortzen da. Gorputz-alde guztietan lortutako puntuazioa batuz, aberearen behin betiko puntuazioa lortuko da.

Azken puntuazioa horrela lortuta, abereak kategoria hauen arabera sailkatuko dira:

| Kategoria | Lortutako puntuak |
|---|---|
| Perfektua | 100 |
| Bikaina | 91tik 99,99ra |
| Oso ona | 81etik 90,99ra |
| Ona | 75etik 80,99ra |
| Onargarria | 70etik 74,99ra |
| Nahikoa | 60tik 69,99ra |
| Eskasa | 55etik 59,99ra |
| Txarra | 55 baino gutxiago |

3.– LIBURU GENEALOGIKOA.

3.1.– «Enkarterrietako astoa» asto-arrazaren liburuak ondoren zehazten diren erregistroak izango ditu:

a) Fundazio Erregistroa (FE).

Jarraian adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten abereak jasoko dira Fundazio Erregistroan:

– Hiru urte baino gehiago izatea.

– Arautegi hau argitaratzen denean, lurralde historikoetako abeltzain elkarteetako erregistroetan inskribatuta egotea.

– Arraza-prototipoaren ezaugarriak betetzea.

– Kalifikazio morfologikoaren arabera, gutxienez 65 puntu lortzea emeen kasuan, eta, arren kasuan, 70 puntu.

Todos los individuos calificados deberán obtener al menos una calificación de cinco puntos en cada una de las regiones corporales para poder ser aceptada su inclusión en el Libro Genealógico de la raza.

2.2.– Aspectos de calificación y su ponderación.–

Las regiones corporales a calificar se distribuyen de la siguiente manera:

Coeficientes Multiplicadores

| Regiones de calificación | Machos | Hembras |
|---|---|---|
| Cabeza y cuello | 2 | 1,5 |
| Pecho, espalda y tórax | 1,5 | 1,5 |
| Cruz, dorso y lomos | 1 | 1 |
| Grupa y cola | 1 | 1,5 |
| Muslos y nalgas | 1 | 1 |
| Extremidades y aplomos | 1 | 1 |
| Órganos genitales | 0,5 | 0,5 |
| Desarrollo corporal y conjunto de formas | 2 | 2 |
| Total | 10 | 10 |

La calificación de cada región corporal será multiplicada por el coeficiente correspondiente según el sexo del animal para hallar los puntos obtenidos. La suma de los puntos así obtenidos por cada una de las regiones corporales dará la puntuación total del animal.

Obtenida así la puntuación final, los ejemplares quedarán clasificados según las siguientes categorías:

| Categoría | Puntos obtenidos |
|---|---|
| Perfecto | 100 |
| Excelente | 91 a 99,99 |
| Muy bueno | 81 a 90,99 |
| Bueno | 75 a 80,99 |
| Aceptable | 70 a 74,99 |
| Suficiente | 60 a 69,99 |
| Insuficiente | 55 a 59,99 |
| Malo | Menos de 55 |

3.– LIBRO GENEALÓGICO.

3.1.– El Libro Genealógico de la raza asnal «Asno de las Encartaciones» estará estructurado en los registros que figuran a continuación:

a) Registro Fundacional (RF).

Serán incluidos en este registro los animales que cumplan las siguientes condiciones:

– Tener más de tres años.

– Estar inscrito en los registros de las asociaciones de ganaderos de cada Territorio en el momento de la publicación de este Reglamento.

– Cumplir los requisitos del prototipo racial.

– Obtener una calificación morfológica mínima de 65 las hembras y de 70 los machos.

Erregistro honetan inskripzioa egiteko epea, arautegi hau onartu eta lau urtetara bukatuko da.

b) Erregistro Osagarria (EO).

Jarraian adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten emeak jasoko dira Erregistro Osagarrian:

– Hiru urte baino gehiago izatea.

– Arraza-prototipoaren ezaugarriak betetzea.

– Gutxienez 65 puntuko kalifikazio morfologikoa lortzea.

– Aurretik aberearen ezaugarri genealogikoak erregistraturik ez egotea.

c) Jaiotza Erregistroa (JE).

Fundazio Erregistroan, Erregistro Osagarrian eta/edo Behin-betiko Erregistroan inskribatutako abereen umeak sartuko dira erregistro honetan, arrak zein emeak direlarik, baldin eta arrazaren ezaugarriak betetzen badituzte. Inskripzioa abereari titia kendu aurretik egin behar da.

d) Behin-betiko Erregistroa (BE).

Hiru urte betetzean, Jaiotza Erregistroko abereak Behin-betiko Erregistroan inskribatuko dira, gutxienez 65 puntuko kalifikazio morfologikoa lortzen badute.

Abereak aipatutako erregistroetako batean inskribatu nahi badira, beharrezkoa izango da banaka identifikatzea.

3.2.– Abenduaren 26ko 373/2001 Dekretuaren 5.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, aitorpen ofiziala duten sustapenerako elkarteek baimena jaso dezakete Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen bidez liburu genealogikoen ardura izateko, ebazpen horretan zehaztutako baldintzetan.

4.– ABEREEN ONARPENA ETA KALIFIKAZIOA.

Abenduaren 26ko 373/2001 Dekretuaren 6.4 artikuluan eta Azken xedapenetatik bigarrenean ezarritakoaren arabera, Liburu Genealogikoaren Batzordeak hurrengo eginkizunak izango ditu, besteak beste:

a) Katalogatutako arrazen liburu genealogikoetan inskribatzeko eskaerak aztertzea, arau berezietan ezarritakoa betetzen duten egiaztatzeko.

b) Abereak kalifikatzea. Batzordeak eskumena duten pertsonengan utz dezake eginkizun hau, batzordearen ikuskaritzapean.

c) Kalifikatutako abereak onartzea, bidezkoa bada.

d) Dokumentazio genealogikoari aterabidea ematea. Eginkizun hau aitorpen ofiziala duten elkarteen esku utzi ahal izango da.

e) Liburu genealogikoaren jardueran sor litezkeen gorabeherei erantzutea eta horiek konpontzea.

El plazo de inscripción en este registro permanecerá abierto durante cuatro años a partir de la publicación de este reglamento.

b) Registro Auxiliar (RA).

Serán incluidos en este registro las hembras que cumplan los siguientes requisitos:

– Tener más de tres años de edad.

– Cumplir los requisitos de prototipo racial.

– Obtener una calificación morfológica de al menos 65 puntos.

– No disponer de antecedentes genealógicos registrados.

c) Registro de Nacimientos (RN).

En este registro se incluirán las crías de ambos sexos descendientes de animales inscritos en el Registro Fundacional, Auxiliar y/o Definitivo siempre que tenga las características propias de la raza. La inscripción ha de hacerse antes del destete del animal.

d) Registro Definitivo (RD).

En este registro serán inscritos los animales incluidos en el Registro de Nacimientos al cumplir los tres años de edad y obtengan una calificación morfológica de al menos 65 puntos.

La identificación individual de los animales será obligatoria para todos los animales que soliciten su inscripción en cualquiera de los registros citados.

3.2.– Conforme a lo fijado en el artículo 5.6 del Decreto 373/2001, de 26 de diciembre, las entidades de fomento reconocidas oficialmente conforme al mismo podrán ser autorizadas, mediante Resolución del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural, a realizar la llevanza de libros genealógicos en las condiciones que se fijen en la misma.

4.– ADMISIÓN Y CALIFICACIÓN DE ANIMALES.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 6.4 y la Disposición Final Segunda del Decreto 373/2001, de 26 de diciembre, la Comisión del Libro Genealógico realizará, entre otras, las siguientes funciones:

a) Examinar las solicitudes de inscripción en el Libro Genealógico de la raza catalogada, con el fin de verificar el cumplimiento de lo establecido en la presente reglamentación específica.

b) Calificar los animales. La Comisión podrá delegar esta función en la/s persona/s competentes bajo su supervisión.

c) Acordar la admisión, si procede, de los ejemplares calificados.

d) Expedir la documentación genealógica, lo cual podrá delegarse en las entidades reconocidas oficialmente.

e) Atender y resolver las diferentes incidencias en el funcionamiento del Libro Genealógico.